

ZORTZI MOZKOR MOTA



Nagore Irazustabarrena
Uranga
@irazustabarrena

Londres, 1592. Thomas Nashe (1567-1601) Errenazimentuko idazle satirikoak *Pierce Penilesse his Supplication to the Divell* (Pierce gizagaixoa deabruari erreguka) panfletoa argitaratu zuen. Bi urte geroago *The Unfortunate Traveller* (Zorigaiztoko bidaiaria) ingelesezko lehen nobela pikareskoa idatziko zuen, baina arrakasta 1592ko panfletu satiriko harekin lortuko zuen, polemikaren eskutik.

Gabriel eta Richard Harvey idazleek gogor kritikatu zuten Nashe-ren eta bere lagun Robert Greenen lana. Anaien neurrigabekeriei erantzunez idatzi zuen Nashek panfletoa eta horrek ika-mika areagotu besterik ez zuen egin. Idazleen arteko gatazkak 1599ra arte iraun zuen; azkenean, Ingalaterrako Elizak esku hartzea erabaki zuen, arerioei elkarri mokoka jarrai zezaten galaraziz eta polemika behin betiko itxiz.

Harvey anaiak barregarri uzteaz gain (edo, zeharka, barregarri uzten jarraitzeko), Nashek zerrenda bitxia jaso zuen *Pierce Penilessen*; animaliak erabiliz, identifikatuta zeuzkan zortzi mozkor motak deskribatu zituen.

“Lehen mozkor mota tximinoa da; saltoka, kantuan, oihuka eta dantzan dabil”.

Bigarren motako mozkorra lehoiarekin alderatu zuen: “Dena nahasten du, ingurukoak iraintzen ditu, gauzak pus-



GEMÄLDEGALERIE ALTE MEISTER

katzen ditu eta hitz egiten dion edonorekin liskarra pizteko joera du”.

Hirugarren mozkorrak, berriz, txerriaren antza du: “Astuna da, erdi lo dago eta negar egiten du edari gehiago lortzeko”.

Laugarrenak ardien antzera jokatzeko du: “Zuhurra da, isilik egoten da hitz egokia topatzen duen arte”.

Ahatea erabiltzen du bosgarren mozkor mota deskribatzeko: “Eztia eta maitagarria da, eta alboan duenari musu ematen dio, zenbat maite duen esanez, eta betiko maiteko duela, besteak atzera maite ez badu ere”.

Harrigarria da seigarren mozkor motaren dohaina, txinpantzearena: “Edan

Guido Reni margolariaren ‘Bako edaten’ olioaren xehetasuna. Italiarrak 1623 inguruan margotu zuen ardoaren jainkoa, Thomas Nashek mozkor moten zerrenda argitaratu eta urte batzuetara.

eta edan egiten du mozkortu arte eta edaten jarraitzen du mozkorra pasa arte”.

Zazpigarrena akerra da: “Mozkortzean, lizunkeria besterik ez du buruan”.

Azkenik, azeri gisako mozkorrak dau-de: “Herbeheretarrengan oso ohikoa, edariak azkarrago eta irudimentsuago bihurtzen ditu”.

Lau mende pasatxo geroago, Nashe-ren zooa bizirik dago gure artean. ■



JOHN GOWANS

Europarrek eragin zuten Rapa Nuiren porrota

Jakob Roggeveen marinel holandarra 1722an Rapa Nui iritsi zenean zibilizazio oparoa topatu zuen bertan. Handik mende erdira, James Cook bertan lehorreratu zenean oso bestelako egoera ikusi zuen. Uhartearen gainbehera barne arazoei egotzi izan zaie, gainpopulazioari eta baliabideak gehiegi ustiatzeari. Baina Honoluluko Bishop museoko Mara

Mulrooney antropologoak (argazkian) zibilizazioaren aztarnak aztertu eta ez du barne eragile horien arrastorik topatu. Beste hipotesi bat du Mulrooneyk: europarrek uhartera eramandako gaixotasunek eragin zuten gainbehera, beste toki askotan bezala. Paul Rainbird, Benny Peiser, Terry Hunt, Carl Lipo eta beste aditu batzuk bat datoz hipotesiarekin. ■